

BIZIRIK GABEKO LURREN HEDAPENA

Industria eta nekazaritza gainustiapena
«Europako baratzea» lur antzu bihurtzen ari da

Lurzoru idorrak, mikroorganismorik gabeak, bizitarik gabeak: Estatu espainolean, errepikapen lehorteek eta industria –edo nekazaritza– gainustiapenak beldurra hedatu dute «lur antzuek» ez ote duten atzeraezinezko progresioa eta «Europako baratzea» lurralde babesgabe eta eremu antzu bihurtuko ez ote den.

«Hemen, lehen, arte berde baso bat zegoen (...). Gaur egun, paisaia bizigabea da», dio penatuta Gabriel del Barriok, hautsez betetako kirol oinetakoak jantzita, zuhaixka txikiak besterik ez dituen muino bat seinalatuz.

Almeriako Gune Idorren Estazio Esperimentaleko (Eeza)

ikertzailea da, basamortutzean aditua, eta egunero ikusten du Andaluziako eskualde horretako paisaiaren degradazioa. Antsietateaz, ordea.

«Espainia ez da Saharakoa bezalako dunen basamortua izango; morfologikoki ezinezkoa da», azaldu du. «Hala ere, desertifikazioa, ekoizpen ahalmena galtzen ari diren lurren degradazioak markatuta, kezkarria da».

Akusatuen aulkian klima berotzea dago. Tenperaturaren igoerak ura lurruntzea areagotu du eta sute sunsitzailleak ugaritu ditu. Baina inguru hori basamortua bihurtzeko bidean egotearen beste errudun bat ere bada: giza jarduera eta nekazaritza intentsiboa.

INGURUMENA / GAUR8

Estatu espainoleko lurraldeak bizirik gabeko lur bihurtzeko bidean daude aldaketa klimatikoagatik baina baita nekazaritza eta industria jardueragatik ere. Almerian, «Europako baratzea» antzu bihurtzeko arriskuan dagoen herrialdean, nekazari batzuk praktika «birsortzaileak» erabiltzen hasi dira.

Ezkerrean, lehortutako eremua. Erdiko argazkian, Gabriel del Barrio ikertzailea, arte bat erakusten, Enix herriko Gador mendilerroan, lehorteak jotako eremu batean. Eskuinean, Juan Antonio Merlos nekazaria, almendrondoen lursailean, Velez Blanco herrian. Ander GUILLENEA-Jorge GUERRERO | AFP

gotzen ari dira akuiferoak agortzen ari direlako, azaldu du Gabriel del Barriok.

«EGOERA ZAILA»

Muturrekoa bada ere, egoera hori ez da salbuespena Estatu espainolean. Desertifikazioaren aurkako Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioaren arabera, Espainiako lurraldearen %75 desertifikaziora eraman dezakeen klimaren mende dago gaur egun. Arazo horren eragina gehien jasaten duen Europako herrialdea da Estatu espainola.

«Horrek egoera zailan jartzen gaitu, muturreko tenperaturen, lehortearen eta beste faktore batzuen konbinazioak higadura arriskua eta lurzoruaren kalitatearen galera larriagotzen baititu», ohartarazi zuen uztailen Trantsizio Ekologikoko ministro Teresa Ribera.

Klima ultralehorra izan arren, Almeriako probintzia «Europako despentsa» bihurtu da urteetan zehar, negutegiko laboreen garapenarekin; «plastikozko itsasoa» izenaz ezagutzen den eremua. Handik milaka tona tomate, piper, kalabazin eta pepino ateratzen dira, bai neguan bai udan.

Baina 40.000 hektarea horiek, milaka urtez lurpeko urez ureztatuak, arazoa larria-



«Eza menpean duen Ikerketaren Zientifikoen Kontseilu Gorenaren (CSIC) arabera, lurzoruen degradazio aktiboa hirukoiztu egin da azken hamar urteetan. Fenomeno hori askoz ere problematikoagoa da, askotan «giza eskalan atzerazina» baita.

Izan ere, Estatu espainolak nekazaritza bere ekonomiaren zutabe bihurtu du, urtean ia 60.000 milioi euroko esportazioak eginda. Horregatik egoe-

Almeriako negutegiak «Europako despentsa» bihurtu dira, baina 40.000 hektarea horiek, lurpeko urez ureztatuak, arazoa larriagotzen ari dira akuiferoak agortzen ari direlako

«Teorian, zazpi urte behar dira nekazaritza birsortzailearen emaitzak ikusteko. Baina hasi naiz nabaritzen ezberdintasuna, lurraren eta intsektuen portaeran»

ra hori –lurzoruek ura eta materia organikoa atxikitze eta laboreei eta abereei eusteko duten ezintasuna– kezkatzeko modukoa da.

«Lurzoruen higadura da orain Espainiako nekazari gehien arazo nagusia», adierazi du Nekazari Txikien Batasunak (UPA), eta egoera larri horrek kostu ekonomiko handia izan dezakeela ohartarazi du.

EPE LUZERAKO LANA

Andaluzian, egoera horrek lanari ekiteko konbentzitu ditu zenbait. «Ahal den neurrian gure mailan jardun behar dugu», dio Juan Antonio Merlosek, 100 hektareako almen-drondo ustiategi baten jabeak, Velez-Blancoko muinoetan, Almeriako iparraldean.

AlVelAl elkarteko nekazari talde batekin batera, 40 urteko gizon honek praktika «bir-

sortzaile» berriak sartu ditu duela hiru urte gurasoen us-tiapenaz arduratu zenetik –orain nekazaritza ekologiko-rako egokitua–. Helburua eskualdeak jasaten duen higadura geldiaraztea da.

Praktika horien artean sartzen dira ongarri kimikoen ordez simaurra erabiltzea, intsektuak hiltzen dituzten pestizidak baztertzea, lurra kaltetzen duen goldearen erabilera mugatua eta zerealez eta lekalez osatutako landare estalkiak erabiltzea, eurite urriak iristen direnean hezetasuna kontserbatzeko.

«Epe luzerako lana da, aspal-ditik ezagutzen diren» teknike-tan oinarritua, azaldu du Juan Antonio Merlosek, bere almen-drondoen azpian landa-tutako garagar adarrak azter-tzen dituen bitartean.

Baina horrek ez dio eragoz-ten baikorra izatea. «Teorian,

zazpi urte behar dira nekaza-ritza birsortzailearen emai-tzak ikusteko. Baina hasi naiz nabaritzen ezberdintasuna, lurraren eta intsektuen por-taeran», dio.

Praktika berri horiez gain, elkarte ekologistek erdua al-datzea ere eskatzen dute, urez-tatze azalerak murriztuta eta ur gutxiago kontsumitzen du-ten laboreak erabilita. «Geure eskaerak benetan erabilgarri dauden ur baliabideetara ego-kitu behar ditugu», azpimarra-tu du Naturarentzako Mundu Funt-sak (WWF).

Gabriel del Barriok analisi bera egin du, ñabardurak ña-bardura. «Oreka bat aurkitu behar da» elikagaien beharra asetzeko lurra arriskuan jarri gabe, dio ikertzaileak. «Lurrak ahalik eta modu jasangarrie-nean kudeatu behar ditugu bi-zirik gabeko lurrak izan ez dai-tezen».

